

2015

LARRATXO KULTUR ETXEA

donostiakultura.com

2015ean Larratxo Kultur Etxean hobekuntza garrantzitsuak egin ziren eraikinaren seinaleztapen, mantenu eta irisgarritasun alorretan eta, bertan eskaintzen diren zerbitzuak eta programazioa hobetu ziren.

2015ean aipamen berezia behar du antzerkiak, hainbat ikuskizun eskaini baitziren helduentzako zein haurrentzako. Haurrentzako antzezlanen artean, **Deabru Beltzak** taldearen **Opera Abeslaria**, **La Baldufa** antzerki taldearen **Alegiazko Liburua** eta **La Rous** antzerki taldearen **Una Niña** aipagarri izan ziren. Helduentzako antzerki eskaintzan, berriz, hainbat talde izan ziren: **Ausartak**, **Biga**, adinduen antzerkiak edo **Maribel Salasen** emanaldia, **Emakumeen Astearen** egitarauan.

Musika atalean, jaialdi berriak indartu egin ziren eta errotuak daudenak bere ibilbideari jarraitu zioten. Berrien artean, aipatzekoak dira, **The Cynics** taldeak ekarri zuen **Open Rock Gaua** eta **Altzatarrock Jaialdia**, euskaraz egiten den musika aurkeztu zuena. Finkatuta dauden artean, **Heavy Jaia** eta **Etengabeko Zarata** aipatzekoak. 2015ean haurrei zuzendutako kontzertu bat gehitu zen eskaintzara: **Pop "n" kids**.

Larratxo Kultur Etxea elkarten eta altzatarren egitasmoei irekia dago eta elkarlan horren bitartez, **Solidaritza Jaia** eta jendetza handia erakartzen duen **Sevillana Jaialdia** antolatu ziren.

Gazteei zuzendutako eskaintzak oso harrera ona izan zuen, batik bat Euskararen Egunaren inguruan antolatutako jarduerak. Bertan, Joseba Usabiagaren **Oroitzapenak** lana izan zen.

Liburutegi atalean, eta berrikuntza bezala, abuztutik aurrera, mailegu digitalaren zerbitzu berri bat eskaintzen hasi zen Larratxo Kultur Etxean, e-liburutegia plataformaren bitartez. Zerbitzua hobetzeko eta erabiltzaile ororengana iristeko helburua ardatz hartuta, mailegatutako e-book kopurua handitu egin zen 2015ean. Bestetik, liburutegiko bisitari kopuruak ere gora egin zuen.



Una niña, La Rous Teatro



The Cynics, Open Rock Gaua



Sevillana jaialdia

DATUAK

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	315	14.526
Antzerkia	15	1.799
Bideoa eta Zinea	4	192
Musika	5	786
Hitzaldiak	2	324
Erakusketak	1	475
Elkarteen bilerak eta jarduerak	261	7.574
Liburutegiko jarduerak	22	261
Dantza	13	2990
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	13	51.553
Visitantes biblioteca Larratxo		24.694
Visitantes C.C. Larratxo		25.000
Plus 55	13	1.859

Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua: **4 liburutegian**

PRESTAKUNTZA EMAKUMEAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	5	75	1	10	4	65
2014/2015 ikastaroak	3	38	1	10	2	28
2015/2016 ikastaroak	2	37	0	0	2	37

PRESTAKUNTZA GIZONAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	5	9	1	0	4	9
2014/2015 ikastaroak	3	4	1	0	2	5
2015/2016 ikastaroak	2	5	0	0	2	5

Bisitariak GUZTIRA: **49.694**